

GARIBALDI

Beste lurralde batzuk bat eginda egozanean, laterriak euren buruen jabe ziran aldian, Italia egoan atzeratuta, batasun ori lortu bagerik. Eta batasun ori lortzea ez zan gauza erreza iksuten, Pipino'k egin eban emoitzaren ondoren Italia-barruan egozalako Aita Santuaren lurraldeak, eta beste lurralde asko inguruko laterrien esku egozalako.

Garibaldi izan zan lenengoz ardura au gogoz artu ebana.

Zelako gizona zan? Ona emen labur-labur esanda: Abertzalea, askatasun-zalea, gizarte-zalea edo sozialista, masoia, eta iraultzailea... Ezagutzeko gizon pozgarria baiña beragaz bizi izateko arriskugarria.

Niza'n jaio zan 1807n. urteko uztailaren 4n. egunean, Napoleon nagusi zala.

Lenengo mariñel izan zan, gero masoi biurtu zan eta Italia'ri begiratzen eutson aberri bat lez, agintaritzak erkal edo errepublikea ebala.

Bere burubideak onartuak ez ziralako, Ameriketara iges egin bear izan eban eta Brasil'en sortu eban iraultzeta, Uruguai'n osterat guda. Emen ikasi eban militarren jokabidea.

Zerdeña'ko erregeagaz izan eban beste gudaldi bat eta galdu egin eban.

Erroma'ra urreratu zan, baiña barriro erbesteratu eben. USA'ra joan zan. An lan eginda ondo bizi zan, baiña bere buruan Italia alkartzea zan elburu nagusi.

1854n. urtean Italia-ondoan asi zan bizi izaten, Zerdeña'tik urtean eta pentsalari ebillan: Zelan batu Italia? Errepublikak bakar bat sortu? Ala liberalen monarkia bat?

Sizilia'ko borboien aurka izan eban beste gudaldi bat.

Gudarostea ezagutu erazteko, arkondara gorridunak ezarri eutsen izena eta izana, bera buru zala. Sizilia ugarteak eskuratu eban eta andik Napoles'era sartu zan 1860n. urtean. Eta Volturno ibaiaren ondoan nagusi agiri zan. Gaeta be eskuratu eban.

Eginda egoan Italiaren batasuna? Ez oraindiño oso-oson Aita Santuaren Laterriak peitzen jakozan. Eta iparraldean Austria'tarrak agintzen eben.

II Biktore Manuel zan Italia'ko erregea eta gertu egoan Erroma izteko, baiña bera ez zan makurtu orretara. Erregeak egin eutsozan eskintzak ez ebazan artu Garibaldi'k eta aurrera jarraitu eban.

1862: Aspromonteko gudaldia. Bera zauritua eta baitua izan zan.

1866: Aita Santuaren Laterrien aurka jo eban Garibaldi'k, baiña galdu egin eban Aita Santuari Frantze'k lagundu eutsolako. Baitu egin eben baiña ez luzaroko.

1870: Abertzaleak Erroma artu eben: Ba-daukagu Uri Nagusia! Aita Santua Batikano'n espetxe beten lez geratu zan.

1874: Garibaldi pozez Italia'ko parlamentari, sozialisten aldetik.

1882: Urte onetan il zan Garibaldi.

Or amaitu zan Italia'ren batasuna lortzea, baiña munduko kristiñauak ez eben onartzen Aita Santuaren egoerea. Konponketa batera eltzeke, urteak itxaron bear izan ziran.

Musolini'k eta Aita Santuak izenpetu eben Letran'eko Ituna: Aita Santua'ri laterri txiki-txiki bat itzi jakon, Eleiza osoa zaintzeko aske izan zeitean. 1927n. urtean izan zan ori eta urteen joanak agertu dau urtebide ona izan zala.

OLAZAR'tar Martin'ek

ZER ALDIZKARIA

Ordaindu, mesedez, ZER aldizkaria! (ogei euro) kontu onetan:

EUSKERA ZALEAK

BILBAO BIZKAIA KUTXA

Bilbao, 2095 0000 7 4 20.000 8961-5

Adiskide! Mesedez ZER aldizkaria aurrera eroaten lagundu eiguazu!

Ebagi orri onetan txarteltxu au eta eroan bbb'ra eta ordaindu 20 €.

Ez dozu ezer be idatzi bear.

Baiña, aztu barik, esan Kutxan zeure izena eta zeure erriarena.

Eskerrik asko!

BIZKAITARREI BIZKAIERAZ